



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/07/12

## **Bizkaiko Batzar Nagusiek aho batez onetsi dabe Udalek Bizkaiko Batzarretan parte hartzeko prozedurea**

Bizkaiko Batzar Nagusietako osokoak Bizkaiko Lurralde Historikoko Udalek Bizkaiko Batzar Nagusietan araugintzarako ekimena aurkezteko prozedurea arautzen dauen foru araua onetsi dau gaur goizean. Batzarretako taldeek aho batez adostu dabe aldizkari ofizialean argitaratu ostean indarrean sartuko dan Foru Araua. Arauaren helburua, udalerrriak araugintzarako ahalmenaren “benetako partaideak” izatea da.

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidenteak Foru Arauaren aurkezpenean gogorarazo dauenez, 2015eko udabarrian onetsi zan Batzar Nagusietako arautegiak berak aurreikusten eban aukera hori 113. artikuluan. Otadui “balioan jarri” gura izan dau lortutako adostasuna, araua aho batez onartu dalako. “Eskertzekoa da ponentziako kideek egin daben beharra, eta zorionak emon behar jakez, lortutako adostasunarengaitik. Gai garrantzitsua da, gurea XXI. mendeko Batzarra izatea eragiten dauenetakoa, herritarrengandik gertu dagon eta horreei arretea eskintzen deuten Batzarra”, adierazo dau.

Otadui buru dan Arautegi eta Gobernu batzordeak emon dauen azkenengo erespenak jasoten dauenez, “Udalen araugintzarako ekimena foru arau-proposamena aurkeztuz gauzatuko da. Gitxienez, Lurralde Historikoko udalen %10ak aurkeztuta eta udal horreetako osoko batzek gehiengo osoz onartuta egongo dira, beti be udal guztion eroldaren batura Lurralde Historikoaren zentsuaren %4tik beherakoa ez bada”.

Testuan, udal ekimen horreetan jaso ezin izango diran gaiak eta Udalek, araugintzazko ekimena erregistretan dabenetik osoko bilkura batean ekimen hori defendiduten daben arte, emon behar dituen pausuak eta aurkeztu behar daben dokumentazioa jasoten da. Lau ordezkari izango dira ekimenaren defendatzaile izaerea edukiko dabenak, Batzar Nagusien aurrean aintzat hartzeko.

Une horretatik aurrera ohiko prozedurea hasiko da Batzarretako taldeentzat. Aurkeztutako testuaren aurrean zuzenketa-eskeak aurkeztu ahal izango ditue, testu hori Mahaitik igaro ostean. Aurretik, Aldundiak bere adostasuna erakutsi beharko dau, ekimenaren tramitazioak aurrekontuak handitzea edo murriztea eragingo ete dauen ikusteko. Proposamena aurkeztu ez daben Udalek be hilebeteko epea izango dabe euren alegazioak aurkezteko. Horren ostean, alegazio horreek be Batzarretako taldeei bialduko jakez.

Batzarretako talde guztiek, Batzar Nagusiak, “herritarrengandik gertuen dagozan” erakundeen “partaidetzarako irekitzeko” aukerea emongo dauen arauaren inguruan lortutako adostasuna azpimarratu gura izan dabe. “Oso ona izango litzateke holango adostasuna beste gai batzuetara be zabaltzea”, adierazo dau Talde Mistoko Arturo Aldecoak.

PPren eretxiz, arauzko garapena, Udalen partaidetzarako “zabalduko dan atea” izango da. Jesús Isasi batzarkideak, aukera hori “asko erabiltea” eta Udalek, gu foru arautegia aldatzera “behartzea” gurako leukela adierazo dau.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Podemos Bizkaia harago joan da, eta lortutako adostasuna azpimarratu ostean, araua “gure erakunde egiturearen erdigunea” izango dala azpimarratu dau. Asun Merineroren eretziz, “Udalen ahalmena indartzen” dauen “aurrerapen demokratikoa” da.

Batzarretako Euskal Sozialistak taldeak, bere aldetik, Udalek “erabateko adostasunagaz” parte hartu daien “formula” bilatzeko Batzarrek egin daberen “esfortzua” azpimarratu dau. Begoña Gilen eretziz “logikoa” da aukera hori eskintzea herritarren arazoengandik “gertuen” dagozan erakundeetara. Akordioak erakusten dauenez, Batzar Nagusiak “garai barrietara egokitzen dira”.

EH Bilduk “adostasunaren aldeko jarrera proaktiboa” azpimarratu dau. Zigor Isuskizaren berbetan, arau horren bitartez, “Udalek gure erakunde egiturean daberen garrantzia eta erakunde horren heldutasuna autortzen dira”. Bere eretziz, Aldundiak ez leuke “mehatxu moduan” ikusi behar, “aukera moduan baino”.

Bukatzeko, María Presa jeltzaleak adierazo dauenez, gaurkoa “egun garrantzitsua da Bizkaiarentzat, bertako udalerrientzat eta biztanleentzat”. Bere berbetan, onartu dan arauak, Batzar Nagusiek Lurraldeko “garrantzitsua dan beharra egiten dabela erakusten dau”. EAJ-PNV taldeko batzarkideak, lortutako adostasuna eta Batzarretako talde guztien beharra be “balioan jarri” gura izan dau, eta baita azkenean onetsi dan araugintzako testuak Batzarretako taldeen ekarpen “guztiak” jaso izana be.

#### FORU DEKRETU BIREN BERRESPENA

Beste alde batetik, Osoko bilkurak berretsi egin ditu Aldundiak preminaz aurkeztuko dituan foru dekretu biak. Alde batetik, Uri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko araua, Arabako eta Gipuzkoako ez-konstituzionaltasun epaien ostean. Holan, lurren balioak gora egiten dauen balizkoek baino ez dabe grabamenik jasoko. Batzar Nagusietako osoko bilkurak aldeko 31 botogaz (EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta Mistoa) eta 16 abstentzinogaz (EH Bildu eta Podemos Bizkaia) berretsi dau testua.

José María Iruarrizaga Ogasuneko foru diputatuak adierazo dauenez, Bizkaian “ezelango inkonstituzionalitate adierazpenik gertatu ez dan arren”, Bizkaiko ogasunak aldaketa hori bultzatu dau “gure lurraldean apliketearen inguruan sortu diran zalantzak kontuan izanda azken aldian Bizkaiko udalerriek adierazo dabena kontuan izanda”, izan be, ez dira ahaztu behar Epaitegi Konstituzionalak emon dituan epaiak, eta Bilboko Administrazioarekiko Auzibidezko Epaitegiak, “Konstituzionalaren jurisprudentzia berbera aitatzuz” Leioan zerga horren kitapen bat balio barik itziz, orain denpora gitxi emon dauena.

Gauza horreek kontuan izanda, aldaketearen helburua Bizkaiko arautegia jurisprudentzia horretara egokitzea da “ahalmen ekonomikoaren printzipioaren interpretazinora zalantza barik egokitu ahal izateko”, Iruarrizagak adierazo dauenez. Holan, lurren balioaren igoerea erakusten daberen balizkoek baino ez dabe zergarik ordaindu behar izango “eta igoerarik eragiten ez daberen eragiketarak zergatik kanpo geratuko dira”.

Jesús Lekerikabeaskoa EAJ-PNV taldeko batzarkideak eta Ekain Rico PSEkoak azpimarratu dabenez, aldaketak Eudelegaz lankidetzan egin dira. Horregatik heldu da orain Bizkaiko aldaketea.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

Javier Ruiz PP taldeko bozeroalea, “gehiegikeria” erakusten eban egoerea kentzearen alde agertu da, baina adierazo dauenez, beretzat egokiagoa izango litzateke hori foru arauaren aldaketaren bitartez egitea. Arturo Aldecoa Talde Mistoko batzarkideak, bere aldetik, aurkeztutako foru dekretua “positiboa” dala esan dau, baina, planteau dauenez, beharbada inflazioa be kontuan hartu beharko litzateke, salmentako balioak alderatzeko.

Arantxa Urkaregi EH Bilduko batzarkideak bere taldearen abstentzinoa justifikau dau, ez dagolako ados aldaketa hori “egiteko uneagaz eta moduagaz”. Gainera, adierazo dauenez, “transmisinoan irabazirik egon ez arren, argitaratu arte Balio gehikuntzaren zergea apliketan jarraitu daitekela planteetan dau” dekretuak. Hori dala eta, “herritarrak helegitea aurkeztera behartzen ari gara”.

Asun Merinero Podemos taldeko batzarkideak, bere aldetik, “orain hilebete bi” aldaketa hori “atzeratu izana” leporatu deutso Foru Gobernuari, eta esan dauenez, “Udalakaz berba egin behar zala” esatea “ez da atxakia”.

#### ALDAKETA SOZIEDADEETAN

Foru Erakundeak, Soziedadeen Zergaren aldaketa bat be onespenerako aurkeztuko dau, jabetza intelektuala edo industrialala ustiatzeagaitiko murrizketari jagokona, hain zuzen be. Talde guztiak Foru Arau horren aldeko botoa emon dabe, abstenidu egin dan Podemos Bizkaiak izan ezik.

Berretsi dan dekretuaren helburua, Iruarriazagaren esanetan, “araubide igarokorrean aktibo sarrera gehiago gertatzeko arriskua murriztea” da, holangoetarako aplikagarri izango litzateken zerga araubidearen onurak lortzeko. Horretarako, Bizkaiak babes neurri gehigarriak sartuko ditu, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera zuzenean edo lotetsita zeharka eskuratzen diran aktibo ikutuezinei araubide igarokorra apliketea saihesteko.

#### AURRETIAZKO AZTERKETA, EKARPENEN LEGEA ADOSTEKO

Saioaren azkenengo partea Batzarretako taldeen ekimenak eztabaidatzera zuzendu da. EH Bilduk, mozino baten bitartez, “berandu jota urriaren 15erako” Ekarpunen Legea adosteko euskarri izan beharko diran erakundeen eskumenen gaineko azterlana bukatzeko “beharrezkoak diran baliabideak” eskatuko ditu. Eskaria aho batez onetsi da.

#### BAIEZKOA GARRAIO PUBLIKORAKO PLAN ESTRATEGIKOA EGITEARI

Osoko Bilkurak, EH Bilduren abstentzinoagaz eta gainerako taldeen aldeko botoakaz, EAJ-PNV, PSE-EE eta PP taldeen zuzenketa-eske transakzionala onetsi dau. Zuzenketa-eske horrek, “Mobikortasun Iraunkorrerako Planari” hasieraa emotea eskatzen eban Talde Popularraren arauz besteko proposamena aldatu dau. Adostutako testuaren bitartez, Batzar Nagusiek “modu positiboan baloretan dabe Bizkaiko Mobikortasunaren Agintaritzak Bizkaiko garraio publikoaren plan estrategikoa egiteko lagungarri izango dan lana kontratau izana, eta eskaria egiten deusie Bizkaiko Foru Aldundiari, Lurraldeko Garraio, Mugikortasun eta Kohesinorako Batzordearen aurrean, lan horreen bilakaeraren inguruko informazioa emoten jarraitu daian, beharrezkoa dan aldizkakotasunagaz”.

#### ONARTU EZ DIRAN EKIMENAK



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PP taldea arauz besteko beste proposamen batez be heldu da osokora. Bertan, Gerra Zibilean, Cabo Quilates eta Altuna Mendi itsasontzietan, Durangoko kartzelan eta Urbinagako eskoletan eta Bilbon 1937ko urtarrilaren 4an gertatutakoetan izandako “bidebako hilketak” jasan ebezan pertsonen aintzatespena eskintzeko eskaria egin dau. Ekimenak ez dau aurrera egin, Batzarretako gainerako taldeak kontra agertu diralako. Talde Mistoa izan da alde agertu dan bakarra.

Osokoari bukaerea emoteko, ez da onartu Podemos Bizkaia taldearen arauz besteko proposamen bat, datorren urtean Aldundiak “aurrekontu osoaren %0,7a lankidetzarako partidara bideratu daian” eskatzeko. Foru Aldundia eusten daberen taldeek, EAJ-PNVk eta PSE-EEK, helburu hori agintaldi honen bukaeran lortzea aurreikusten dabe. “Azkenengo urteetan lankidetzarako aurrekontuak gora egin dau. Esfortzua egin da, eta %0,7 hori lortzeko bidean gagoz”, adierazo dau Begoña Gil sozialistak.

**MIGUEL ANGEL BLANCO OROITUZ**

Bizkaiko Batzar Nagusietako osoko bilkurea, Miguel Ángel Blanco Ermuko zinegotzia oroituz Presidenteak irakurri dauen adierazpenagaz hasi da, ETAk bahitu eta hil ebanetik hogeitun urte bete diranean. Bertan, Bizkaiko Batzarren konpromisoa berresten da “indarkeriaren biktime guztien oroimenari bizirik eusteko hasitako beharraz jarraitzeko”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
12/07/2017

## **Las Juntas Generales de Bizkaia aprueban por unanimidad el procedimiento de participación de los ayuntamientos en la Cámara vizcaína**

El pleno de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado esta mañana el procedimiento de iniciativa normativa de los ayuntamientos de Bizkaia ante la Cámara vizcaína. Los grupos junteros han acordado por unanimidad una Norma Foral, que entrará en vigor tras su publicación en el boletín oficial, y que tiene como finalidad que los municipios puedan ser “verdaderos partícipes” de la potestad normativa.

Como ha recordado la presidenta de la Cámara vizcaína, Ana Otadui, en la presentación de la Norma Foral, el propio reglamento de las Juntas Generales –aprobado en la primavera de 2015- ya establecía en su artículo 113 tal posibilidad. Otadui ha querido “poner en valor” el consenso obtenido ya que la norma se ha aprobado por unanimidad. “Es de agradecer el trabajo realizado por los miembros de la ponencia y felicitarles por el consenso alcanzado. Este es un tema importante, uno de esos que hace que el nuestro sea un Parlamento del siglo XXI, una Cámara cercana y que atiende a la ciudadanía a la que se debe”, ha dicho.

El dictamen final emitido por la comisión de Reglamento y Gobierno que preside Otadui, recoge que la iniciativa normativa de los Ayuntamientos se ejerza mediante la Proposición de Norma Foral, “aprobada por mayoría absoluta de sus plenos, de al menos el 10% de Ayuntamientos del Territorio Histórico, cuyo censo no sea inferior en su conjunto al 4% de la población total del Territorio Histórico”.

El texto establece las materias que no pueden ser incluidas en estas iniciativas municipales y los pasos y documentación que deben dar y presentar los ayuntamientos desde que registran la iniciativa normativa hasta que la defiendan en una sesión plenaria. Cuatro representantes ostentarán la condición de defensores de la iniciativa de la toma en consideración ante las Juntas Generales.

A partir de ese momento se iniciará el procedimiento habitual para los grupos junteros que podrán presentar enmiendas al texto presentado, una vez de que el mismo pasa el filtro de la Mesa. La Diputación deberá dar su conformidad previamente para ver si su tramitación implica aumento o disminución presupuestaria. Los ayuntamientos no promotores tendrán también un periodo de un mes para presentar alegaciones que serán, posteriormente, remitidas a los grupos junteros.

Todos los grupos junteros han querido destacar el consenso alcanzado en una norma que permitirá “abrir” las Juntas Generales a la “participación” de las entidades que son “las más cercanas a la ciudadanía”. “Ojalá estos consensos se amplíen a otros temas” ha deseado Arturo Aldecoa del grupo Mixto.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Para el PP, el desarrollo reglamentario supone una “puerta abierta” a la participación de los ayuntamientos. Su apoderado Jesús Isasi ha deseado que esta posibilidad sea “muy utilizada” y que los ayuntamientos “nos fuercen” a que se tengan que modificar la normativa foral.

Podemos Bizkaia ha ido más allá y después de destacar también el consenso alcanzado, ha dicho que la norma será “parte nuclear de nuestro entramado institucional”. Para Asun Merinero es un “avance democrático” que “refuerza la capacidad de los ayuntamientos”.

Por su parte, el grupo juntero Socialistas Vascos ha destacado el "esfuerzo" de la Cámara por buscar una "fórmula" para la participación de los ayuntamientos con un “consenso absoluto”. Para Begoña Gil es “lógico” que se ofrezca esta posibilidad a las instituciones que están “más cerca” de la problemática de la ciudadanía. El acuerdo demuestra que las Juntas Generales “se adaptan a los nuevos tiempos”.

EH Bildu ha subrayado la “actitud proactiva por el consenso”. Para Zigor Isuskiza con esta norma “se reconoce la importancia de los ayuntamientos en nuestro entramado institucional” y “su madurez”. Cree que la Diputación no debe verla como “una amenaza sino como una oportunidad”.

Por último, la jeltzale María Presa ha señalado que hoy “es un día importante para Bizkaia, los municipios y su ciudadanía”. La norma aprobada “evidencia” –según ella- que las Juntas Generales “hacen un trabajo importante” para el Territorio. La apoderada del PNV ha querido también “poner en valor” el consenso alcanzado y el trabajo de todos los grupos junteros, y el hecho de que el texto normativo final incorpore “todas” las aportaciones de los grupos junteros.

## RATIFICACIÓN DE DOS DECRETOS FORALES

Por otro lado, el pleno ha ratificado dos Decretos Forales presentados por la Diputación con carácter de urgencia para cambiar, por un lado, la norma sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana, tras las sentencias de inconstitucionalidad de las normas de Araba y Gipuzkoa, de tal manera que se sometan a gravamen únicamente supuestos en los que exista un incremento de valor de los terrenos. La Cámara ha ratificado este texto por 31 votos a favor (PNV, PSE-EE, PP y Mixto) y 16 abstenciones (EH Bildu y Podemos Bizkaia)

Aunque en Bizkaia, según el diputado foral de Hacienda, José María Iruarrizaga, "no se ha producido declaración de inconstitucionalidad alguna", la hacienda vizcaína ha promovido esta modificación "teniendo en cuenta las dudas surgidas sobre la aplicación en nuestro territorio puestos de manifiesto últimamente por los municipios de Bizkaia", debido a las sentencias del Tribunal Constitucional y de una reciente sentencia del Juzgado de lo Contencioso Administrativo de Bilbao que anulaba una liquidación de este impuesto en Leioa "invocando la misma jurisprudencia del Constitucional".

En este marco, la modificación pretende adecuar la normativa vizcaína a esa jurisprudencia "en aras a una sujeción sin fisuras a la interpretación del principio de capacidad económica", ha señalado Iruarrizaga. De este modo, se someterán a gravamen únicamente los supuestos en los que exista un incremento del valor de los terrenos, "manteniendo al margen del impuesto las operaciones en los que no exista incrementos".



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Tanto el apoderado del PNV Jesús Lekerikabeaskoa como el del PSE Ekain Rico han destacado que las modificaciones se han realizado en colaboración con Eudel de ahí que la modificación en Bizkaia llegue ahora.

El portavoz del PP, Javier Ruiz, ha apoyado que se elimine una situación "de abuso", si bien ha señalado que habría preferido que la vía elegida hubiese sido una modificación de la norma foral. Por su parte, el juntero del Grupo Mixto Arturo Aldecoa ha considerado que el decreto foral presentado es "positivo", aunque ha planteado que quizá se tendría que tener en cuenta la inflación para comparar los valores de venta.

La apoderada de EH Bildu Arantxa Urkaregi ha justificado la abstención de su grupo porque no está de acuerdo "en cuándo y cómo se hace" esta modificación. Asimismo, ha advertido de que el decreto "plantea que hasta que se publique se puede aplicar el Impuesto de Plusvalía aunque no haya ganancia de transmisión", con lo que se está "obligando a los ciudadanos a recurrir".

La juntera de Podemos Asun Merinero, por su lado, ha acusado al Gobierno foral de "retrasar" esta modificación "hace apenas dos meses" y "no sirve de excusa" alegar que "había que hablar con los ayuntamientos".

#### CAMBIO EN SOCIEDADES

La institución foral ha presentado también para su aprobación una modificación del Impuesto sobre Sociedades en relación a la reducción por la explotación de la propiedad intelectual o industrial. Todos los grupos han votado a favor de esta Norma Foral a excepción de Podemos Bizkaia que se ha abstenido.

Con el decreto ratificado se pretende, según Iruarrizaga "mitigar el riesgo de que se produzcan nuevas entradas de activos al régimen transitorio" para beneficiarse de un régimen tributario que no les habría sido de aplicación. Para ello, Bizkaia introduce medidas de protección adicional para evitar que se apliquen el régimen transitorio a los activos intangibles que se adquieran directa o indirectamente de parte vinculadas después del 1 de enero de 2016.

#### ANÁLISIS PREVIO PARA CONSENSUAR LA LEY DE APORTACIONES

La última parte de la sesión se ha reservado para debatir las iniciativas de los grupos junteros. EH Bildu ha pedido, a través de una moción, "los recursos necesarios" para culminar "como muy tarde, para el 15 de octubre" el análisis sobre las competencias y la financiación de las instituciones vascas que debe servir de soporte para consensuar la Ley de Aportaciones. La petición ha sido aprobada por unanimidad.

#### APOYO A LA ELABORACIÓN DE UN PLAN ESTRATÉGICO PARA EL TRANSPORTE PÚBLICO

El pleno ha aprobado, con la abstención de EH Bildu y el apoyo del resto de grupos, una enmienda transaccional firmada por PNV, PSE-EE y PP, que cambiaba una proposición no del norma del grupo Popular que pedía a la Diputación iniciar un "Plan de Movilidad Sostenible". Con el texto consensuado, las Juntas Generales "valoran positivamente la aprobación por la Autoridad de la Movilidad de Bizkaia de la contratación de un trabajo de apoyo a la elaboración de un plan estratégico del transporte público de Bizkaia e instan a la Diputación Foral de



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Bizkaia a continuar informando a la Comisión de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, con la periodicidad que resulte necesaria, de la evolución de dichos trabajos”.

#### INICIATIVAS RECHAZADAS

El PP llegaba al pleno con otra proposición no de norma que abogaba por que se realizara un reconocimiento a las personas que fueron “injustamente ejecutadas” en los barcos prisión Cabo Quilates y Altuna Mendi, en las cárceles de Durango y las Escuelas de Urbinaga en Sestao y en los sucesos del 4 de enero de 1937 en Bilbao. La iniciativa ha decaído por el rechazo del resto de grupos de la Cámara. Sólo el grupo Mixto la ha apoyado.

El pleno ha concluido con el rechazo también de una iniciativa no de norma de Podemos Bizkaia que pretendía instar a la Diputación a destinar el año próximo “el 0,7% del presupuesto total a la partida de cooperación” un objetivo que los dos grupos que sustentan al Gobierno foral –PNV y PSE-EE- se han marcado alcanzar a final del presente mandato. “En los últimos años el presupuesto a cooperación ha subido. Se ha hecho un esfuerzo y estamos en el camino” para alcanzar ese 0,7%, ha dicho la socialista Begoña Gil.

#### RECUERDO A MIGUEL ANGEL BLANCO

Las Juntas Generales de Bizkaia han comenzado el pleno con la lectura de una declaración de Presidencia en recuerdo del edil de Ermua Miguel Ángel Blanco, en el vigésimo aniversario de su secuestro y asesinato por parte de ETA, en la que se reitera el compromiso de la Cámara "el trabajo emprendido en aras a mantener viva la memoria de todas las víctimas de la violencia".